

**XXXII. ESKOLARTEKO ANTZERKI
ASTE
2022**

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- GARAPENA**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- AURREKONTUA**

1. eranskina: Udal Eskola kontseiluaren batzarreko akta (2021eko urria)

2. eranskina: 2019ko antzerki jardunaldietako publizitatea

1.- SARRERA

Urtero berriztatzen izan den egitasmoa..., pandemia etorri arte. Bi urtez etenda egon ondoren, eta parte hartzen duten eragileen eskakizunari ere erantzunda, berreskuratu egingo da 2021-2022 ikasturtean, planteamendua zerbait aldatuta.

Udal Eskoletako monitoreekin/irakasleekin elkarlanean, Gernika-Lumoko irakaskuntza zentroetan ahozko adierazmena euskaraz lantzea du helburu egitasmo honek. Gernika-Lumoko Udalak diru-laguntza eta material baliabideak jartzen ditu horretarako.

2.- HELBURUAK ETA XEDE TALDEA

Helburu nagusia:

Eskola orduetatik kanpo edota eskola mundutik gizarteratzekoak diren ekintza horietan parte hartzen dutenen artean euskarazko ahozko adierazmena lantzea eta esparru ez formaletan erabilpena normalizatzea, eskola-hizkuntza gizarte-hizkuntza bilaka dadin.

Helburu mailakatuak:

1).-"Inmertsio linguistikoa" deituriko prozesu horretan, hizkuntza "bizitzarako baliabide" dugula-eta, euskararen prestigioa landu ikasleekiko:

- ikasteko
- jolasteko
- lagun berriak egin eta komunikatzeko (ikasle etorkinena batik bat kontuan hartuta).
- Jai giroarekin lotzeko.

2).- Ekintzak antolatzerakoan gurasoen partaidetza landuko da. Hizkuntza transmisioan familia oinarrizkoa izanik, guraso eta seme-alaben arteko harremanetan euskararen erabilpena ere girotu nahi izango da, etxeko mugetatik aterata gizartean kokatuz.

3).- Hezkuntza arloari zehazki dagokionean, badira bide batez landuko diren atalak:

- Eskola mundua eta gizartea harremanetan jartzea.
- Ikasleak gizarteratzeko bideak jorratzea.
- Euskal ohiturak hedatzea.
- Ikasleen psikomotrizitatea lantzea.

ESEP-en helburuekin bat:

Indarrean egon zen 2014-2018 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta oraintxe 2019-2023 eperako ESEP-en daukagu onartuta. Plan horren arabera ere 2020ko Kudeaketa Plana moldatu da eta bertan aintzat hartu dira hurrengo helburuak:

- Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

2. Irakaskuntza

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- 2.4.4.3.- Ahozko adierazmena indartzearen, eskolarteko antzerki jardunaldiak antolatu

- Helburua estrategikoa: 2.- Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

- 7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza, opor garaietakoak, udako ludoteka,

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: bilerak koordinatuko ditu eta gainerako ekintzak antolatu (inprentakoak, ekitaldietarako baliabideak, e.a.).
- Udal Eskola Kontseilua: Batzorde honek egiten dituen bilkuretan, bestea beste, ikasturtean burutuko diren eskolaz-kanpoko ekintzen egutegia zehazten da. Ekintza horien artean Umeen Antzerki jardunaldiena (datak, baldintzak, partehartzaileak, ikusleak, e.a.).
- Ikastetxeak/Institutuak: 6 zentro (Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen dutenak). Momentuz zentro batek uko egin dio parte hartzeari.

Baliabideak:

- Eskoletako/Institutuetako irakasleak/monitoreak (6): zentro bakoitzak egitasmo hau garatzeko arduradun bat jarriko du.
- Diruzkoak, aretoa e.a.: antolaketarako beharko den azpiegitura Gernika-Lumoko Udalak jarriko du eta jarduera zentroetan garatu ahal izateko diru laguntzak ere bideratuko.

4.- GARAPENA

XXXII. Umeen antzerki asteak lau eguneko iraupena izango du: maiatzaren 16tik 19ra, biak barru.

Jardunaldiak Gernika-Lumoko Lizeo Antzokian izango dira. Zentro bakoitzeko talde bat partaide, 6 talde guztira (LH eta DBH-koak). Convid-

aren ondorioz, bakoitzaren ekitaldia ezin izango zaie eskaini beste zentroetako ikasleei, zentro berekoei baino. Saioak grabatu eta Oizmendi telebistatik eskainiko dira, telebistaren egunen eta orduen zabalkundea eginda. Grabaketak eurak ere gainerako zentroi bidaliko zaizkie

Entseguetarako egunak eta orduak

Maiatzak 9	Mertzede (11:00)	San Fidel (14:30)
Maiatzak 10	Barrutia (10:00)	
Maiatzak 11	Gernika Institutua (11:00)	Seber (14:30)
Maiatzak 12	Barrutialde (11:00)	

Ekitaldietarako egunak eta orduak:

Maiatzak 16	Mertzede (11:00)	San Fidel (14:30)
Maiatzak 17	Barrutia (11:00)	
Maiatzak 18	Gernika Institutua (11:00)	Seber (14:30)
Maiatzak 19	Barrutialde (11:00)	

5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldeak:

- LHko ikasleak: guztira 1.100 ikusle, eurretatik 100 bat antzezle.
- DBHko ikasleak: guztira 800, eurretatik 50 bat antzezle.

Adierazleak:

- Antzezle modura parte hartzen dutenak (150) landutako unibertsoarekiko (1.900).
- Ikusle gisa jardunaldietara joango diren ikasleen kopurua: 1.200 (6 ekitaldi x 250 bakoitzeko).
- Jardunaldietan ikusle gisa egongo diren familiartekoak eta zentro bakoitzak bere zentrokoentzat eskainiko dituzten ekitaldietako ikusleak.

- Ekitaldi guztiak eskainiko dira udalerriko Oiz-Mendi telebistatik. Aldez aurretik ohartaraziz, etxean grabatu nahi izaten duenak aukera izango du. Ondorioz, gurasoekiko eta familiekiko zeharkako eragina nolabait lantzen dugulakoan gaude, nahiz eta honi lotutako adierazleak eskuratzea oso zaila izanik. Estimaziorik baikorrenak esango liguke antzezleen etxeetan grabatuko direla ekitaldiak eta zeharkako eragina jasoko dutela guraso eta familia hurkoak. Ikusle potentzialak Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeetan, 11.000 inguru (gehi eskualde horietatik kanpo Oiz-mendik dituen ikusleak, beste 9.000 inguru –egindako azken neurketen arabera-).

6.- AURREKONTUA

Gastuak

2000 esku-orri (inprenta)	1.200
ZUZENEAN- Zerbitzu Teknikoa	2.800
Diru laguntzak zentroei	3.500
Diplomak	200
Oizmendi telebistaren grabaketa eta kopiak	2.000
Guztira gastuak	9.700

Gernika-Lumon, 2022ko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

I. ERANSKINA

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2021eko IRAILAREN 24an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Hezkuntza Zinegotzia)
- Lide Gonzalez (Berritzeguneko Euskara teknikaria)
- Ainara Morgaetxebarria (Allende Salazar ikastetxea)
- Itxaso Garteizurrekoa (San Fidel Ikastola)
- Josu Ojinaga (Seber Altube Ikastola)
- Maite Laruzea (Barrutia Ikastetxea)
- Igor Mejías (Barrutialde Institutua)
- Lourdes Madariaga (Gernika Institutua)
- Ager Cuadrado (Mertzedo ikastetxea)
- Ana M^a Perez (HHI-EPA Zentroa)

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Hasiera ordua: 10:00

Amaiera ordua: 11:00.

(....)

2).- Antzerki Jardunaldiak-2022

Pandemiaren eraginagatik irakaskuntzarako dauden protokoloak kontuan hartu dira eta zentro desberdinetako ikasleak leku itxian nahastea saihestea.

Hartu den erabakia:

a).- Zentro bakoitzak Lizeo antzokian eskainiko du bere antzezlanak eta ikastetxe bereko ikasleak izango dira ikusle. Antzerki saioa grabatu egingo du Oizmendi telebistak eta gero beste guztiei eskainiko zaie grabaketa bera eta Oizmendik eskainiko dituen emanaldien berri ere zabalduko da.

b).- Entseguetarako egunak eta orduak

Maiatzak 9	Mertzede (11:00)	San Fidel (14:30)
Maiatzak 10	Barrutia (10:00)	Gernika Institutua?
Maiatzak 11	----- (11:00)	Seber (14:30)
Maiatzak 12	Barrutialde (....?)	

c).- Ekitaldietarako egunak eta orduak:

Maiatzak 16	Mertzede (11:00)	San Fidel (14:30)
Maiatzak 17	Barrutia (11:00)	Gernika Institutua (....?)
Maiatzak 18	----- (11:00)	Seber (14:30)
Maiatzak 19	Barrutialde (....?)	

(...)

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko Zinegotzia,

Batzordeko idazkaria,

Iñaki Gorroño Etxebarrieta

Bittor Zarrabeitia Bengoa



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



II. ERANSKINA

2019ko antzerki jardunaldietako publizitatea





ESKOLARTEKO
XXXI. ANTZERKI ASTEA
19 GERNIKA-LUMO

EGUNA	ORdua	ANTZERTALDIA	KUSILEAK	ANTZAZIARIA
MAI 14	11:00 15:00	SAN TIBELI KASTOLA (11ko & 12. moduko ikasleak)	11 & 12. moduko ikasleak	"Osoa bitartean testamuntua"
MAI 14	15:00	BARRETTA IKASTETXEA 11 & 12. moduko ikasleak	11 & 12. moduko ikasleak	"6. maila bukatu dute!"
MAI 15	15:00	MERTZETE IKASTETXEA 11 & 12. moduko ikasleak	11 & 12. moduko ikasleak	"Gut ekitortri on ginez, zut zergatik ez?"
MAI 16	11:00 15:00	GENIYA INSTITUTEA DBH 1-2. astea (6-7-8 urte)	DBH 1-2. moduko ikasleak	"Super Herria!"
MAI 16	15:00	SIBERATUTUE IKASTOLA (11 & 12. moduko ikasleak)	11 & 12. moduko ikasleak	"Kristikoak' Guai!"

Δ KRISTIAK: Eskola sarrerik biderik ez



ESKOLARTEKO
XXXI. ANTZERKI ASTEA
2019 GERNIKA-LUMO

Maiatzaren
14tik 16ra
LIZEO ANTZOKIAN

